

*Oiartzungo egoitzan hasi aurretik egitasmo honek laguntzaileak izan ditu, baina bereziki eta modu zuzenean 1995. urtean Ergoingo egoitzan kokatuz geroztik modu eta neurri ezberdinetan H. M. Txokoak laguntzaile asko izan ditu.*

Mota askotako laguntza jaso dugu: soinu-tresnak konpontzen, garbitzen, kaixetan gordetzen, garbiketarak egiten, soinu-tresna berriak lortzen, informatika lanetan eta gehienbat soinu-tresna bilduma, biblioteka eta fonoteka artxiboetako fitxak egiten.

Multzo handi batek osatzen du H.M. Txokoaren laguntzaile taldea. Eta errekonozimendua eta eskerrak eman nahian antolatatu dugu "laguntzailea"ren eguna.

Ekainak batean, arratsaldeko seietan elkartuko gara, zentroa bisitatuko dugu, jarraian bertan antolatutako musika emanaldia entzungo dugu eta bukatzeko "Laguntzaileen" eta musikarien afaria "Auzokalte" elkartean.

Orain arte izan den bezala, hemendik aurrera bide oparoa egin nahi badu, H.M. Txokoak holako laguntzaile asko beharko du.

**HM BERRIAK**  
HERRI MUSIKAREN TXOKOaren  
buletina

*Hau da gure etxeko berri emateko sortu dugun buletin berriaren lehen alea. Oraindik ez dakigu zenbateko maiztasunez aterako den, ez eta nolakoa izango den ere. Hori gure ahalmen eta beharraren arabera izango da. Baina garbi ikusten dugu gure inguruan zaretenok hemen gertatzen denaren jakin gainean egon behar duzuela eta "HM berriak" helburu horrekin sortu da. Esan beharrik ez dago buletin hau modu egokiagoaz egiteko zuen iritziak eta laguntza oso baliagarriak izango direla.*

## LEHENBIZIKO BI HILE HAUETAN BISITA UGARI

Ateak zabaldu ondorengo bi hilabete hauen datuak ondorengoak dira:

**Martxoak:** Bisitarien kopurua: 333. Antolatutako taldeak:11

**Apirila:** Bisitarien kopurua: 273. Antolatutako taldeak:10

## EUSKAL SOINU-TRESNEN ERAKUSKETA MUGIKORRA

Honetaz gain Erreterian, maiatzaren hasieran burututako XXIV. Euskal Herriko Eskulangintzaren Azokaren ekitaldien barruan "Soinu Tresnak Euskal Herri Musikan" izenarekin antolatu genuen. Oso arrakastatsua gertatu zen, milaka bisitari bertan izan zirelarik.

## HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 / 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org



oiartzungo  
udala



# BERRIAK

2002ko maiatza

1. zkia

## Martxoaren hasieratik zabalik dago HERRI MUSIKAREN TXOKOA

2002ko martxoak batean Herri Musikaren Txokoak ireki zituen ofizialki bere ateak. Iragarri zen bezala, Zentro honek hasieran publikorako ostiraleko eta larunbateko goiz eta arratsaldetan funtzionako du eta eskaera eta diru laguntzen arabera egutegia aldatuko da.

Inaugurazio ekitaldia oso jendetsua izan zen. Bertan agertu ziren Euskal Erkidegoko, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Oiartzungo erakunde ofizialetako ordezkariak, arlo ezberdinetako kultur erakundee-takoak, Oiartzungo Kultur eta Hezkuntza Elkarte eta erakundee-takoak eta bestelako herri-musika zaleak. Ekitaldiak honako egitaraua izan zuen: Hasieran eta jendeari harrera emateko Oiartzungo Lartaun Txistulari Taldearen saioa eta ondoren Oiartzungo Bertso Eskolako bertsolari gaztearen agurra.

Hizlariak ere izan ziren:

Juan Mari Beltran  
Argiñena (Herri Musikaren Txokoa): Ongi etorria

eman eta H.M. egitasmoaren aurkezpena egin zuen.

Jon Bagues (Eresbil): Herri Musikaren Txokoa eta Eresbilen arteko elkarlanerako jarrera eta osagarritasuna.

Joaquín Díaz (Valladolid-Urueña-ko Centro Etnográfico Joaquín Díaz): H.M. Txokoaren hasiera hasieratik Urueña eta Oiartzungo zentroen artean izan den harreman estuak eta anaikidetasuna azpimarratu zuen, gure zentroari bizi luze eta oparoa iragarritz.

Xabier Irargorri (Oiartzungo Alkatea): Oiartzungo Udala eta J.M. Beltranen arteko egitasmo hau aurrera ateratzeko orain artean egindakoa eta



# Kontzertuak Txokoa

## Hurrengo ekainaren 1ean lehenbiziko emanaldia

### OIARTZUNGO EGUNA

Larunbatean, martxoan, "Oartzungo Eguna" ospatu zen eta festa giroan Oartzungo herriari Txokoa erakutsi zitzaion. Goizeko 10etan Dultzainero, txistulari eta albokari taldeek Oartzungo auzoetan kalebuelta jo zuten. 11etan Herri Musikaren Txokoaren ateak zabaldu ziren oiartzuar guztientzat. Bitartean etorritako txalapartari, dultzainero, txistulari eta

albokari taldeek txandaka euren saioak eskeini zituzten arratsaldeko zortziak arte.

Eguerdian partean, 14,30etan: musika taldeetako musikariek Auzokalte Elkartearen bazkaldu zuten, elkarte honetako sukaldariak prestatutako bazkari ederra.

Egun horretan jotzen aritu ziren taldeak hauek izan ziren: Oartzungo Lartaun Txistulari Taldea, Hernani Musika Eskolako Dultzaineroak, Hernaniko Albokariak, Ttakun Ttan Ttakun Txalaparta Taldea eta Oartzungo Trikitilariak.



Juanito, Xanet, Aitor eta Urko

Herri Musikaren Txokoa egitasmoak beste helburuen artean hasieratik aurrerikosten zuen herri-musika emanaldiak antolatzea. Ez dakigu nolako maiztasunez egingo dugu hemendik denbora batera, baina abiatzeko 2002 lehen urte honetarako lau kontzertu antolatzeko erronka hartu dugu. Hauek lau urtaroeekin lotuak egongo lirarteke. Herri-musika emanaldi hauetan euskal herri-musikarekin batera beste herri-tako musikak ere eskeini nahi ditugu. Horregatik, ahal den guztietan saio bikoitzak izango lirarteke.

Eta hasieratik huts egin nahi ez dugunez, udaberrikoa, ekaina baterako antolatu dugu. Udatik hurbil egonik ere, oraindik udaberria denez, lehen saio hau Euskal Herriko eta gure ondoko Errioxako musikaz osatu dugu.

### AROZENATARRAK

Euskal Herria ordezkatzeko duen taldea aukeratzeko ez gara urrutira joan. Oartzun bertan aurkitu dugu Arozenatar txistulari famili ospetsua. Juanitok eta Aitor, Urko eta Xanet bere semeek osatzen dute maila handiko danbolitero taldea.

Kontuan hartzekoa da 2002ko martxoan Villabonan ospatutako Euskal Herriko Txistularien Txapelketan lortutakoa; Urko finalista eta Aitor txapeladuna.

Beraien saioan, danboliteroen artean ohizko izan diren bakarlaria, bikotea, hirukotea eta laukotea formazioetako musika mota eta estilo ezberdinak eskeiniko dizkigute.



### TURRUTES

Errioxako ospakizunetako eta plaza dantzen herri musika. Besteen artean Errioxako gaiteroen eta soinu-jole zaharren errepertorioetatik hartutako musika. Horrela, herri eta eskualde batzuetako berezkoak diren dantza zaharren doinuak eta XIX eta XX. mende hasierako herri-musikarien plaza dantzez osatutako errepertorioa eskeintzen dute.

Talde honek Errioxako herri-musikan jo izan diren soinu-tresnak erabiltzen ditu eta hiru musikariek osatzen dute:

**Fernando Jalón:** gaita-dulzaina, gaita de bota, txistu-xirula, salterio eta klarineta. Bera Errioxako herri-musikan ikertzailea da, gaita-dulzaina irakaslea eta eskolako arduraduna, soinu-tresna egilea (gaita de bota, gaita-dulzaina, salterio, xirula) eta Errioxako dantza talde askotako musikaria.

**Javier Soldevilla:** danborra, bateria. aurrekoarekin batera musika eskolan aritzen da danbor irakasle gisa eta gaitero nahiz dantza talde askotan parte hartzen du.

**Bixente Setoain:** akordeoi kromatikoa eta diatonikoa. Akordei jolea izatez gain, azken urtetan zenbait herrietan kromatikoa eta diatonikoa erakutsi egin ditu

### Lehenbiziko bisita "ofizialak"

hemendik aurrera egiteko dagoen informazioa eman zuen, eta bereziki egitasmo hau eta sortuko diren beste berri batzuek kudeatzeko sortzeko dagoen Oartzun Kultur Fundazioa eta Herri Musikaren Txokoa izango duen egoitza berria. Hau, ezin egoi kiago den Iturriozko Dorretxean egongo dela eta horretarako jadanik zaharberitzeko aurreproiektua martxan dela iragarri zuen.

Ondoren, Lartaun Txistularien musikarekin Jon Maia Errenteriako dantzariak agurra eskeini zien bildutako guztiei.

Segidan, Herri Musikaren Txokoaren ateak zabaldu ziren eta Soinu-tresnen Erakusketaren lehen bisita "ofiziala" eskaini zen.

Eta bukatzeko, lagun arteko oso giro onean Oartzungo Udalak eskainitako luntxa, herri musikaz lagundurik, Ttakun-ttan-ttakun txalapartataldea, Tapia eta Leturia trikitilariak, Hernaniko Dultzaineroak, Hernaniko Albokariak eta Lartaun Txistulariekin.